

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ding Chen Yin

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1995)*

Aurkibidea



Biografia



Arrasaten jaioa, gurasoak txinatarrak ditu. Bere anaia Jian Madrilen jaio zen. Ikastolan ikasi zuen, eta ondoren euskal sukaldaritza ikasten ibili zen Gasteizen. Bere familiak bi jatetxe ditu Arrasaten. Ling Gran Muralla jatetxean egoten da lanean. Musika elektronikoa sortzea eta skatea gustatzen zaizkio. [101 L proiekturako](#) ere elkarrizketatu genuen, mandarinera.

Zintak

ARR-187

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2016-01-28
- **Iraupena:** 39 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Hemengo bizimodua nahiago Txinakoa baino

- **Erref:** ARR-187/002
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:13:23. **Bukatu:** 00:14:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Hemengo bizimodua nahiago du Txinakoa baino. Hemen ditu lagunak. Toki askotako jendea ezagutzen du: euskaldunak gain, marokoarrak, ekuadortarrak...

2. Belaunaldi berriak irekiagoak

- **Erref:** ARR-187/003
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:14:52. **Bukatu:** 00:16:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Adineko txinatarrak asko egoten dira etxean (horregatik esaten da ez direla integratzen), baina bere adineko gazteak irekiagoak dira.

3. Zaletasuna: musika ekoiztea, lokalean

- **Erref:** ARR-187/004
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:16:05. **Bukatu:** 00:18:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Gazteendako lekuak

Laburpena:

Zaletasunak. Saskibaloian ibili zen umetan. Lokalean egoten da denbora librean, lagunekin. Tecno eta deep house musika ekoizten egoten dira lokalean.

4. Kotxean batera eta bestera

- **Erref:** ARR-187/006
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:19:00. **Bukatu:** 00:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Tabernetan ibiltzeko ohitura ere badu, lagunekin. Arrasaten, Gasteizen, Bilbon... musika elektronikoa jartzen duten lekutara, batez ere. Kotxean ibiltzea ere gustatzen zaio.

5. Sare sozialetan murgilduta

- **Erref:** ARR-187/007
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:22:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak

Laburpena:

Sare sozialak asko erabiltzen ditu. Argazkiak igotzen ditu. Snapchat zer den azaltzen du. Gurasoei ez zaie arritza egiten teknologiaren mundua; urte asko daramatzate hemen eta ohituta daude.

6. Asteburuetan lana jatetxean

- **Erref:** ARR-187/008
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:24:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Jatetxeko lana oso lotua da. Denetik egiten du. Asteburutan libratzea zaila dauka. Astelehena libratzen du. Badaki zer den lo egin gabe lanera joatea.

7. Ostalaritza ikasten ibilia

- **Erref:** ARR-187/009
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:24:52. **Bukatu:** 00:25:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Bere anaiak Enpresaritza ikasi zuen eta txinerako itzultzaile gisa dabil. Gasteizen Ostalaritza ikasten ibili zen Ding; ondo moldatzen da sukaldean.

8. Skatea zaletasun

- **Erref:** ARR-187/011
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:32:08. **Bukatu:** 00:33:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Skatea du zaletasun moduan. 10-11 urterekin hasi zen. Skate pista ireki dute kiroldegian.

9. Pelikulak eta musika

- **Erref:** ARR-187/012
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:33:59. **Bukatu:** 00:34:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

"Ocho apellidos vascos" filma gustatu zitzaion. Youtuben ikusten ditu bideoak eta bestela zinemara joaten da. Musika ere jaisten dute Internetetik.

10. Txinan itxiagoak?

- **Erref:** ARR-187/013
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:34:55. **Bukatu:** 00:36:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Txinako eta hemengo ohiturak alderatzen ditu. Han karaokea egiten dute lagunartean. Txinan itxiagoak direla uste du. Hala ere, Txina asko aldatu da azken urteetan: modernizatu.

11. Lagunekin gaztelaniaz

- **Erref:** ARR-187/015
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:36:51. **Bukatu:** 00:38:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gutxi egiten du euskaraz lagunekin, gehiago gaztelaniaz. Lanean eta lagun jakin batzuekin (ikastolako lagunekin) egiten du euskaraz. Arrasateko taberna batzuetan gutxi entzuten da euskaraz.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com